



Arartekoaren 2013ko apirilaren 15eko ebazpena. Horren bidez, Zumaiako Udalari gomendatu zaio industria poligono baten mugakide den urbanizazio batean zarata kontrolatzeko araudiaren betetzea egiaztatze aldera dagozkion neurriekin aurrera jarrai dezala.

Aurrekariak

1. Zumaiako Alaia kaleko x-tik y-ra zenbakietako auzotarren talde batek Ararteko erakundera jo du euren etxebizitzetan pairatzen dituzten zarata eragozpenen berri emateko. Zarata horiek, funtsean, (...) jardueraren funtzionamenduaren ondoriozkoak dira.

Zehazki aditzera eman dute enpresa horrek garatzen duen industria jarduerak inguruneko etxebizitzetan bizi diren pertsonen bizi-kalitatean eragina duten soinu emisioak eragiten dituela.

Hori dela-eta, Zumaiako Udalean hainbat idazki aurkeztu dituzte egoera hori salatzeko eta udalak, bere eskumenak gauzatuz, jarduera horren gauzatzeari ezarritako neurri zuzentzaileak betetzen direla ziurtatu dezan. Era berean, udalak enpresaren jardueraren lizentziari dagokionez eta udalak burututako ingurumen kontrolerako jarduerari dagokienez eskuragarri duen ingurumen informazioa ikusi nahi dutela adierazi dute, baita egindako neurketen ingurukoa ere.

Erreklamatzailleek esan digute udalean zenbait bilera egin direla gai horri lotuta eta, horien bidez, udalak gauzatutako esku-hartzeen berri eman dietela. Hala, udalak hala eskatuta egin diren zenbait txosten aipatu dituzte. Horietan, erreklamatzaileren interpretazioari jarraiki, egiaztatu da euren etxebizitzetan pairatzen dituzten zarata emisioek, une jakin batzuetan, zaratari buruzko araudiak xedatu dituen kalitate parametroak gainditu dituztela.

Halaber, mahai gainean jarri dute euren etxebizitzetako egoitzetarako lurzorua garapena mugakide den industria poligonoa eta gero sustatu zela. Gertutasun horren ondoriozko ingurumen gaitz posibleak saihesteko, Otalora-Basusta urbanizatzeko obrek zenbait neurri zuzentzailearen gauzatzea barne hartu zuten, inpaktu akustikoa murrizteko helburuarekin (ildo-bizkarra, pantailak eta landareztatzea). Hala eta guztiz ere, momentuz ez dira neurri horiek gauzatu eta, ondorioz, pairatzen duten kutsadura akustikoaren arazoa konpontzea zailago bihurtu da.

2. Erreklamazioa izapidetzeko behin onartuta, Zumaiako Udalari jardueraren lizentzian ezarritako neurri zuzentzaileen eta jarduerari ezarritako neurrien udal kontrolaren inguruko informazioa eskatu genion. Neurrien xedea enpresaren jarduerak eragiten duen kutsadura akustikoa kontrolatzea da. Modu berean,



informazioa eskatu genuen Zumaiako Plangintzako Arau Subsidiarioen xedapenen betetzearen inguruan, Otalora-Basusta urbanizatzeko proiektuaren obren gauzatzeari lotuta ezarritako ingurumen neurriei dagokienez.

3. Gure eskaerari erantzunez eta errekerimendu bat bidali ostean, udalak 2012ko martxoko txostena bidali zigun eta, horren bidez, ingurumen arloko araudiaren betetzea egiaztatzeko gauzatutako jardueren berri eman zigun.

Zumaiako Udalak azaldu du jabekideen komunitateak aurkeztu dituen salaketen ondorioz, zenbait txosten tekniko egiteko agindua eman duela enpresatik datorren zarata maila ebaluatzeko asmoz. Hala, 2010eko maiatzeko txostena aipatu du. Bertan, ondorioztatzen da jarduerak ez dituela Eusko Jaurlaritzak ezarritako zarata mailak gainditzen *"une jakin batzuetan izan ezik"*. Horregatik, 2010eko uztailan, enpresari neurri zuzentzaile berriak abian jartzeko eskatu zion, xedatutako mailak gainditzea saihesteko. Halaber, beste gune batzuetatik (labeetako tximinia, estalkiko erauzgailuak eta hozketa dorreetako pantailan dagoen irekidura) zetorren zarata murrizte aldera ingurumen zarata kudeatzeko plan bat egiteko ere eskatu zion. 2011ko urtarrilean enpresak obra jakin batzuk egin zituen zarata murrizteko helburuarekin (isilgailua labeetako tximinian eta haizagailua, baita txatar eta hondakinen parkea ixteko proposamen bat ere). Neurri horiek hartu ostean, 2011ko apirilean, neurketa berriak egin zituzten eta soinu mugak gainditzen ez zirela ondorioztatu zen *"excepto en momentos puntuales en los que se realiza la operación de movimiento de cajas con carretillas por el exterior, en los que se supera el límite tanto del periodo diurno como del nocturno"*. 2011ko abuztuan enpresari neurri zuzentzaileak hartzeko eskatu zitzaion, fabrikaren alboetan zeuden irekidurak itxi zitzaion.

Eskatutako neurriak gauzatu ostean, 2011ko abenduan eta 2012ko urtarrilean neurketa berriak egin zituzten, jarduerak eragindako ingurumen zarata mailak zehazteko helburuarekin. Txosten teknikoak ondorioztatu zuen gauerako ezarritako ingurumen zarataren muga errespetatzen zela, hau da, 35 db (A).

4. Interesdunei kontu horien berri eman genien eta haiek zarataren arazoa konpontze aldera egin diren aurrerapausoen berri eman digute. Edonola ere, azaldu dute etxebizitza jakin batzuetan oraindik ere industria jardueraren ondoriozko zarata eragozpenak jasan behar izaten dituztela noizean behin. Komunitateak uste du gauzatutako itxiturak irekidura bat daukala, ate gisa, eta hortik jardueraren zarata ateratzen dela.

Urbanizazio proiektuan ezarritako neurri zuzentzaileen gauzatzeari dagokionez, ez da horren gaineko informaziorik jaso eta jabekideen komunitateak udalak jarduera ezarritako neurri zuzentzaileei egokitzeko burutu dituen udal jardueren inguruan eskatu zuen informazioa ez du bidali.





Erreklamazioan jasotako alderdiak eta emandako udal erantzuna baloratu ostean, honako gogoetak helarazten dizkizugu:

Gogoetak

1. Gure esku-hartzearen xedea Zumaiako Udalaren jarduna aztertzea da, Alaia kaleko x-tik y-ra zenbakietako higiezinetan bizi diren pertsonak jasaten dituzten zaraten ondoriozko eragozpenen kontrolari lotuta. Zarata horiek, funtsean, mugakide den industria lurzorutik datoz, bertan (...). enpresaren jarduera garatzen baita.

Erreklamazioaren bidez mahai gainean jarri da udalak behar bezalako kontrola gauzatu behar duela industria jarduera horren emisio iturrien gainean eta ziurtatu behar duela etxebizitzaren barruko aldeari dagokionez ingurumen arloko araudian jaso diren kalitate akustikoaren helburuak betetzen direla.

Modu berean, erreklamazio horren bidez, auzotarrek Otalora-Basusta egoitza garapenerako aurreikusitako hirigintzako eginbeharren betetzea mahai gainean jarri dute. Egoitza erabilera duen urbanizazio hori mugakide den industria poligonoa eta gero eraiki zen eta une honetan kexa aurkeztu duten pertsonak bertan bizi dira. Erreklamatzailleek aditzera eman dute ez direla behar bezala gauzatu urbanizazio proiektuan mugakide den industria lurzorutik datorren inpaktu akustikoa murrizte aldera aurreikusitako obrak.

2. Industria poligonoaren inguruan bizi diren pertsonak aipatu dituzten eragozpenak arazo bilakatu daitezke ingurumen kontrolerako araudian ezarritako parametroak gainditzen baldin badituzte.

Komenigarria da gogora ekartzea Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (Martínez Martínez Espainiaren aurka kasuko 2011ko urriaren 18ko Epaia) eta Epaitegi Konstituzionalak ebatzi dutela zaratek, isurpenek eta usainek pertsonen etxebizitza errespetatzeko eskubidea eragotzi dezaketela.

Lurzoruari buruzko testu bategina onetsi duen ekainaren 20ko 2/2008 Errege Dekretu Legegilearen 4. artikuluan jaso da pertsonak etxebizitza edukitzeko eskubidea dutela eta horrek legeriak onartzen dituen gehieneko mugak gainditzen ez dituen zaratarik edo edozein motatako immisio kutsatzailerik gabeko etxebizitza edukitzeko eskubidea barne hartzen duela.

Horren harira, toki erakundeei dagokie hirugarrenen legezko interesekin bateragarriak diren neurriak hartzea, jarduerak gauzatu ditzaten soinuaren iturriak eragin ditzakeen eragozpenak edo kalteak saihestuz.

Zentzu horretan, organo publiko eskumendunak hirugarrenei eragozpenak edo kalteak sor diezazkieten zaratak saihesteko eta, bidezkoa denean, zuzentzeko,





antolamendu juridikoak esleitu dion botere edo egitekoa baliatu behar du ezinbestean.

Ingurumenerako kaltegarriak diren egoerak antzematen direnean tokiko erakundeek ezin dute arazotik aldendu eta pertsoneri edo ondasunei kalteak eragin arte esperoan geratu, eta ezin dute, ezta ere, espedientea atzeratu lokaleko erantzuleek jardura legeztatuko duten esperantzan oinarrituta. Ezinbestekoa da udalak arrisku egoera amaitzeko esku hartu dezala eta beharrezko neurri zuzentzaileak har ditzala edo, bestela, arduradunei eurei zuzenean agindu diezaien hori egin dezaten.

Industria jardueretatik datorren zarataren emisio iturrien udal kontrolak harreman zuzena dauka hainbat iturritatik datorren ingurumen zarataren ebaluazioarekin eta kudeaketarekin. Gauzak horrela, zaratari buruzko legeriak kalitate akustikoari buruzko helburu batzuk ezarri ditu eta aintzat hartu du gehienezko immisio balio batzuk gaitutuko ez direla. Ingurumen zarata horri buruzko esku-hartze publikoak ez du esan nahi erabilera baimentzen duen udal jardura lizentziaren menpe dauden jardueren ingurumen kontrola alde batera utzi ahal denik.

3. Erreklamatzailerak salatu duten zarataren kontrolari dagokionez, lehenik eta behin, industria jardura horretatik datorren zarataren iturriak kontrolatze aldera, udal eskumenak ezarri behar dira.

Argi dago mota horretako jardura industrialei araudi tekniko-juridiko egokirik aplikatu ezean, jardura industrialaren titularrek negozioa egiteko duten interes partikularraren eta ingurumena zaintzeko zein industrialdearen inguruan bizi diren herritarrei isurketa kutsagarriek eragin diezazkieten legez kontrako eragozpenak ekiditeko interes orokorraren arteko gatazka sor daitekeela.

Sailkatutako jarduerak ingurumen arloko legedira egokitzeko eta horren kontrola eskatzeko botere publikoek egin behar dituzten jarduerak ez dira hautazkoak. Interes orokorra defendatzeko eta legedi horrek eskatzen dituen betebeharrak betearazten direla bermatzeko antolamendu juridikoak ematen dizkien eskumen publiko horiek ordena publikoko kontua dira.

Ingurumenaren kontrola burutzeko ingurumenerako egokia dela justifikatzen duen derrigorrezko prestakuntza-titulu administratiboa atera behar da jardura abian jarri aurretik. Halaber, ingurumenaren kontrola ez da baimen horretara mugatzen, izan ere, behar bezala garatzeko segimendua egin behar zaio eta emaitza jakinak eskatu behar zaizkio aurrez xedatutako ingurumen kalitaterako helburuei dagokienez.

Kasu honetan, Ingurumena babesteko Euskal Autonomia Erkidegoko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 55.1. artikulua xedatzen duenez, industria jarduerak abian jarri ahal izateko ezinbesteko baldintzatzat jotzen da





sailkatutako jarduera lizentzien araubidearen eta irekiera lizentziaren menpe egotea.

Ingurumen arloko lizentzia horiek lotura iraunkorra sortzen dute eta horren helburua interes publikoa babestea da, baimendutako jarduera garatzeak eragin ditzakeen arriskuen aurrean. Argi utzi behar da jarduerak beti bete beharko duela baldintza inplizitu bat, une oro interes publikoaren arabera izatea alegia. Eskakizun horiei esker, administrazioak beti izango du baimendutako jardueran esku hartzeko aukera, betiere, proportzionaltasunez jokatuta; eskumen horri esker, jarduerak behar bezala funtzionatzen duela bermatzeko beharrezkoak diren zuzentzeko eta egokitzeko neurriak jarri ahal izango dizkie jardueraren sustatzaileei, baita ofizioz ere, eta azkeneko baliabide gisa, baimena baliogabetu ahal izango du ezinezkoa bada interes publikorako eskakizunetara egokitzea, izan ere, hala egin ezean, zaintza, segurtasuna, elkarbizitza eta ordena publikoa bermatzeko betebeharrak nagusien kontrako utzikeria izango litzateke.

4. Aztertzen ari garen espedientean Zumaiako Udalak egiaztatu du esku hartu duela jardueraren funtzionamendutik datorren zarata kontrolatze aldera eta zenbait neurri zuzentzaile gehigarri abian jar ditzaten eskatu duela jarduera horrek eragiten duen zarata murrizteko asmoz. Modu berean, aurkeztutako azken neurketetan ondorioztatu da jardueratik datorren zaratak, bai egunean zehar, bai gaez, ez dituela kalitate akustikoaren araudian jasotako parametroak gainditzen.

Edonola ere, aipatu behar da industria jarduera horren gaineko ingurumen kontrolaren exigentziak derrigorrezkoa den jarduera lizentzia eman ahal izateko ezarritako dagozkion neurri zuzentzaileetan jaso direla.

Horregatik, Zumaiako Udalak behar bezala jakinarazi behar dizkie erreklamatzaleei jarduera horri ezarritako neurri zuzentzaileetan zaratari lotuta jaso diren exigentziak. Udalak ziurtatu behar du industria jarduerak justifikatzen duela etxebizitzaren barruko aldera igorritako zaratak ez dituela, ezin momentutan, neurri zuzentzaileetan ezarritako zarata parametroak gainditzen. Era berean, jarduerak, industria esparruaren kanpoko itxiturari dagokionez, zarataren inguruan ezarritako ingurumen arloko exigentziak bete behar ditu.

Garrantzitsua da aipatzea neurri zuzentzaileetan xedatutako mugak gainditzeak betebeharrak haurtzat hartzea: udalak dagokion ingurumen arloko ikuskapen eta kontrol prozedura abian jarri behar du, Ingurumena Babesteko Euskal Autonomia Erkidegoko 3/1998 Lege Orokorraren 64. artikuluan ezarritakoarekin bat eginez.

Modu berean, azpimarratu behar da udalak ingurumenaren arloan dituen eskumenen arabera, ez da nahikoa eskatzea jarduera ingurumeneko araudira egokitu dezala. Administrazioak egiaztatzen badu neurri zuzentzaileetan ezarritako mugak gainditu direla, noizean behin gertatzen den zerbait bada ere,





dagokion zigortzeko espedientea abian jartzeko betebeharra dauka, Ingurumena Babesteko Euskal Autonomia Erkidegoko 3/1998 Lege Orokorraren 106. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraiki.

Badakigu zaila dela instalazioak zaindu eta kontrolatzea eta uste dugu oreka bilatu behar dela jarduera industrialaren eta herritarren eskubideen, hau da, jarduera industrialaren garatzeko eskubidearen eta zaraten ondoriozko eragozpenik jasan gabe deskantsatzeko eta kalitatezko ingurumenaz gozatzeko eskubidearen artean.

5. Bestalde, ingurumen zarata kontrolatzeko administrazio neurriak daude. Izan ere, batzuetan gerta daiteke emisio iturri bat baino gehiago egotea. Europako Parlamentuko eta Kontseiluaren 2002ko ekainaren 25eko 2002/49/CE Zuzentaraua, ingurumen zarataren ebaluazioari eta kudeaketari buruzkoa, honela definitu du ingurumen zarata hori *"el sonido exterior no deseado o nocivo generado por las actividades humanas, incluido el ruido emitido por los medios de transporte, por el tráfico rodado, ferroviario y aéreo y por emplazamientos de actividades industriales"*..

Eremu akustiko jakin batzuetan zein eraikinen barruko aldean aplikagarriak diren zaratarentzako kalitate akustikoaren helburuak urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren bidez arautu dira. Dekretu horrek zarataren buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatu da. Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoaren gaineko urriaren 16ko 213/2012 Dekretua onartu du.

Araudi horrek ingurumen zarata ebaluatzeko eta kudeatzeko mekanismoak ezarri ditu kalitate akustikoa hobetzeko eta kalitate akustikoari lotutako helburuak bete ahal izateko. Dagozkion zarata-mapak egiteak (10.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan; horixe ez da Zumaiaren kasua) zera dakar: zenbait estrategia eta jarduera zuzentzaile, prebentibo eta babes akustikoko jarduerak abian jartzea udal ekintza planen bitartez.

Azken finean, ingurumen zarataren kasuan, toki administrazioek ingurumen zarataren kudeaketa behar bezala ebaluatzeko betebeharra daukate, araudian ezarritako eginbeharren eta biztanle gutxien dituzten udalerriek dituzten kudeaketa aukeren arabera.

Gure iritziz, herri-administrazioek gai horri dagokionez egin behar dituzten ahaleginek honekin zerikusia daukate: herritarrek ingurumenari dagokionez eta euren etxean baimenik gabe sar ez daitezten dauzkaten eskubideen gauzatzearen berdintasunarekin, euren udalerraren tamaina gorabehera.

6. Erreklamazioan azaldutako azken kontuak honi egiten dio erreferentzia: Otalora-Basustaren egoitza garapenerako aurreikusitako hirigintzako betebeharren betetzerik eza. Horien xedea industria poligonoaren inpaktu akustikoa murriztea zen.





Egoitza urbanizazio hori 2. sektoreko plan partzialaren bitartez garatu zen (Puntanueta), Zumaiaiko Puntanueta 2. sektoreari buruzko Arau Subsidiarioen Aldaketan jasotako xedapenekin bat eginez. Azken hori, 2011ko abenduaren 11ko diputatuen kontseiluaren erabakiak onetsi zuen. Dagokion hirigintzako fitxan irakur zitekeen Plan Partzialak inguruneari lotutako Ingurumen Inpaktuaren Azterlana barne hartu behar zuela, "(...) barne".

Hala, 2. sektoreko Plan Partzialak (Puntanueta), 2001eko abenduaren 27an onetsitakoak, 27. artikuluan honako eginbehar hau gaineratu zuen zegokion urbanizazio proiektuaren barruan *"soinu inpaktua konpontzeko beharrezkoa den ildo-bizkarra eta estalkiak jartzea, Ingurumen Inpaktuaren Azterlanaren III. eranskinari jarraiki"*.

Ondoren, erreklamatzailerik jakinarazi zioten Zumaiaiko Udalari -2011ko irailaren 30eko idazkiaren bitartez- Zumaia Lantzen SA enpresako urbanizazio proiektuaren sustatzaileak ez zituela behar bezala gauzatu urbanizazio proiektuan mugakide den industria lurzorutik datorren inpaktu akustikoa murrizteko aurreikusitako obrak.

Horri dagokionez, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak urbanizazio obrak lursailetan eraiki baino lehen gauzatzeko betebeharra barne hartzen du -189. artikulua- eta behar bezala gauzatzen dela egiaztatzeko eginbeharra ere ezarri du, urbanizazio obren jasotze-aktaren bitartez.

Erreklamatzailerik aipatutako idazkian kontu hori aditzera eman dute baina ez du ematen udalak erantzuna eman duenik. Modu berean, Ararteko erakundeak berriaz urbanizazio obretan ezarritako ingurumen neurrien betetzea ziurtatzeko egindako udal jardueren gaineko informazioa eskatu zuen.

Egindako eskaerak ez zuenez berriazko erantzunik jaso, esan daiteke ez dela eginbehar hau bete: administrazio horrek behar bezala izapidetu behar ditu herritarrek aurkezten dituzten idazki guztiak, arin, biziki eta eraginkortasunez, espedientea behin betiko ebatzi edo amaitu arte.

Lehenago ere aditzera eman dugun moduan, prozedurazko izapideen eta herritarrentzako erantzun eraginkorren bermea Espainiako Konstituziotik beretik dator -103.1. eta 105. artikulua- eta Lisboako Itunak sartutako Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Kartako 41. artikulua xedatzen duenez, herritarrek administrazio onerako duten eskubidearen baitakoak dira.

Ararteko erakundeak sarritan salatu du administrazioaren isiltasuna oso kaltegarria dela. Izan ere, isiltasunak defentsarik gabeko egoeran uzten ditu herritarrak, ez baitakite administrazioak zein borondate duen haien eskaerei buruz eta ezin dute eskatutakoaren erantzuna berrikusi.





Gauzak horrela, Ararteko erakundeak azpimarratu nahi du berriro ere udalak erreklamatzaillearen idazkiei al bait lasterren erantzun behar diela egindako eskaeran eta hirigintzako legerian xedatutakoari jarraiki.

Horrenbestez, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan xedatutakoari jarraiki, honako gomendioa egiten dugu:

Gomendioa

– Industria jarduera horrek eragiten duen zaratari dagokionez, industria jardueraren udal lizentzian esparruaren kanpora igortzen den zarataren gainean ezarritako neurrien betetzea egiaztatzen jarrai dezala, ziurtatzeko ez dituela, ezein momentutan, neurri zuzentzaileetan ezarritako zarata-parametroak gainditzen.

Neurri horiek nahikoak ez baldin badira, udalak neurri gehigarri berriak hartzeko aukera baloratu beharko luke eta mugak aditzera eman beharko lituzke eskatutako neurriak ez badira betetzen. Halaber, eskatutako neurrien ez-betetzearen ondoriozko administrazio zigorrak ezarri beharko lituzke, Ingurumena Babesteko Euskal Autonomia Erkidegoko 3/1998 Legean ezarritako terminoetan.

– Ingurumen zaratari lotuta, Zumaiako Udalak beharrezkoak diren errekurtsioak eta prozedurak abian jarri behar ditu zarataren gaineko legerian jasotako kalitate akustikoaren helburuak betetzen direla lortzeko, hirigintzako eremu horretan bizi diren pertsonen etxebizitzetara dagokienez.

– Azkenik, Zumaiako Udalak berariaz erantzun behar dio jabeekideen komunitate horrek aurkeztutako eskaerari, 2. sektorean (Puntanueta) mugakide den industria lurzorua soinu inpaktua murrizte aldera aurreikusitako urbanizazio obren gauzatzea bermatzeko.

